



KUDEAKETA PLANA 2025
EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEA

SARRERA

1 ARDATZA: ZIENTZIA, KULTURA, HEZKUNTZA

2 ARDATZA: GEOTURISMOA

3 ARDATZA: LURRALDEA ETA KONTSERBAZIOA

4 ARDATZA: BERTAKO GARAPENA ETA SOSTENIBILIDADEA

**5 ARDATZA: GESTIO OROKORRA, KOMUNIKAZIOA eta
MARKETINA**

Sarrera

Aurtengo urteko plana oso baldintzatuta egongo da Next diru laguntzekin egingo diren proiektuengatik. Nahiz eta ez duten izango Geogarapenentzat kosturik, finantziatuta datozelako, lan-karga handia izango dute bai azpiegitura berrietan (Flyscharen Interpretazio Zentroa, Mutrikuko Santa Katalina Komentua, HAB, Debako Turismo bulegoaren egokitzapena, etab.) baita bestelako proiektuetan ere, tour birtuala edo trafikiko eta aparkalekuen kontrol digitala, esaterako. Proiektu hauek Geoaparkearen estrategiarekin bat egiten dute eta horregatik Gestio Planean bere isla dute.

Bestalde, plan estrategikoak jarraitzen duen lan ildo berdinak jarraitzen ditu gestio planak ere, aurtun kultura eta euskara udal sailekin eta herrietako elkarteekin lotura eta elkarlana sustatuko da berrikuntza bezala.

Marketin planaren garapena ere lehentasuna izango da, azpiegitura berriak irekiko diren neurrian irudi bateratua zabaltzen joango da.

1. ARDATZA_ ZIENTZIA, KULTURA eta HEZKUNTZA

Ardatz estrategiko honek Lurraren Zientzien eta natura- eta kultura-ondarearen ikerketarekin eta gizartearatzeari lotutako helburuei erantzun nahi die.

Zehazki, ondare geologikoaz gain, ondare arkeologikoan, itsas ondarean eta ondare ukiezinean jartzen du arreta. Ardatz honen helburua da, halaber, ingurumen-hezkuntza koordinatuaren eskaintza garatzea, Euskal Kostaldeko Geoparkea hainbat bisitari motarentzako gune interesgarri bihur dadin, eskola-eremuan bereziki.

1.1. Lurraren Zientzien (LLZZ) alorreko ikerketa eta dibulgazioa

- 2023an kaleratu genuen ikerketa deialdia **Coastal Landforms of the Basque Coast UNESCO Global Geopark – From Inventory to Geomorphological Map** proposamenak irabazi zuen bi urteko ikerketa proposamenarekin. 2024an lehen urteko lanak egin dira eta 2025ean proiektua bukatuko da.
<https://geoparkea.eus/eu/zientzia-hezkuntza/ikerketa-geoparkean>
- Urtero bezala, LLZZ eta Geoparkearen **dibulgazioa** lehentasun bat izango da, bai gerturatzen direnentzat eta bai gonbidatuak garen tokietan hitzaldiak eskainiz aurrez aurre edo online.
- **2026ko ikerketa** deialdia prestatuko da.
- **Batzorde zientifikoaren** eguneraketa eta topaketa. Azken urteetan egin diren proiektu berriek aginduta Geoparkearen hasieran eratu zen Batzorde Zientifikoko zientzilarien zerrenda eguneratu behar da, hori aprobetxatuz ekitaldi berezi bat antolatuko da. Geoparkearen Astearekin bat egitea da asmoa, zientzilariak hitzaldi, tailer edo ekarpen ezberdinak testu inguru batean ipintzeko.
- Geoparkean oinarritutako **Pop up ipuina** bertako ilustratzaile batekin egingo da eta argialetxe baten bitartez zabalduko da.
- **Mapa geomorfologikoa digitalean** prestatu eta paperean ale batzuk aterako dira. Orain dela urte batzuetako ikerketa baten emaitza izan zen baina oraindik publikatu gabe dago. Geomorfologo ospetsuak ditugula aprobetxatuz, mapari gainbegirada bat eman eta argitaratu egingo dugu.
- **Mapa Geologikoa eguneratu** Geologia Interesgune berriekin. Iazko inbentarioaren ondorioz 11 GIG gehiago daude eta momentuz ez daude mapa geologikoan jasota.

1.2. Ondare arkeologikoa eta historiaurrearen ikerketa eta dibulgazioa

- **HAB proiektuaren** hurrengo faseetan aurrera egiteko Debako Udalarekin elkarlanean jarraituko dugu.
- **Ermittiako indusketa.** Aurten HAB proiektuaren bigarren fasearekin lotuta, kobazuloaren ahoan plataforma bat ipintzea dago aurre ikusita eta horretarako ahoan dauden hondakinen indusketa egin behar da.
- **Debako Turismo Bulegoaren** birmoldaketan HAB-ren tematizazioa egingo da.

1.3. Ondarearen zabalkundea (Itsas-ondarea eta ondare ukiezina)

- Aktibo kulturalen inbentarioa egingo da eta kultur elkarteekin eta euskara eta kultura teknikariekin batera plana egingo dugu. Ateratzen den plan horri hasiera emango zaio aurten, jasotzen diren ekintzak exekutatu.

1.4. Ingurumen-hezkuntza. Geoeskolak

- Eusko Jaurlaritzarekin daukagun hitzarmena, Ingurumen Saitetik Ingurumen-hezkuntzara pasatu digute.
 - Geoparkeko eskolekin harremana indartzeko neurriak hartuko dira, udaletako Hezkuntza teknikarien laguntzarekin.
 - Azken urteotan garatu diren hiru unitate didaktikoetan Geoeskolen parte hartzea sustatzen jarraitzen dugu. Azken urte honetan zailtasun berriak sortu dira eta teknikariekin ikusiko dugu ze erantzun eman.
- Geoparkeko Flyscha, DBH4rako
Amonite fosilak, LH1erako
Lasturko Karsta, LH6rako
- Olinpiada Geologikoen antolakuntzarekin elkarlana.

2. ARDATZA_ GEOTURISMOA

Urtean zehar, geoturismoa sustatzeko ekintzak proposatuko dira, betiere turismo iraunkorraren edo ekoturismoaren ildotik.

2.1. Produktuak eta baliabideak

Ekoturismoa

Ekoturismoa da Geoparkeako turismo alorraren lan-esparru orokorra. Ekoturismo Klubarekin eta 24 entitate laguntzailerekin batera, merkaturatze-eta sustapen-ekintzak egingo dira.

Geoparkeko Bira

Iaz gauzatu zen baliabide turistiko berri hau, aurretik zeuden oinezko ibilbideetan oinarrituta. Seinalizazioa, trackak, webgunea, eskuorria, promozio bideoa, etab. sortu ziren eta orain falta den lana produktua sortzea, sustatzea eta merkaturatzea da.

- Bidaia desberdinak antolatuko dira. Info trip bat antolatuko dugu (Turismo bulego, Visit Euskadi, APITEko gidariekin). Operadore, prensa edo influenzerrekin beste fam trip bat antolatuko da (Nexonatura eta Pays Basque adibidez) Gastronomiarekin ere lotu beharra dago: gazta, txakolina, bideko jatetxeak, etab.
- Bidaia agentzia batekin hitz egingo da paketea sortzeko eta merkaturatzeko (zerbitzu gehigarriekin).
- Publizitatea.
- Merchandising-a.

Kirol ekitaldiak

Honako kirol-ekitaldi hauen antolakuntzarekin elkarlana ohiko baldintzetan.

- Zumaia Flysch Trail
- Lasturko mendi martxa: Geoparkeko Karstari Bira
- Flysch Beltza, Saturraran-Deba igeri zeharkaldia
- Flysch Gravel

Gaur egungo turismo produktuen hobekuntza: Turismo-produktu batzuen egoeraren diagnostikoa egingo da, eta produktua hobetzeko eta merkaturatzeko plan bat egingo da (Nautilus eta Algorri aurreragorako utziko dira). Familientzat fam trip berezi bat eta promozioa egingo dira, esaterako.

- Flyscha hurrekin, Mutrikun
- HAB bisitaren sustapena, Deban

2.2. Bisita gidatuak

Estrategia aldaketaren bigarren urtea izango da eta datuak izango ditugu eragina baloratzeko. Estrategia berriaren arabera, gutxien ateratzen diren bisitak bultzatuko dira, bolumena enpresa pribatuen eskuetan utzita.

Hauek dira gaur egun programa merkaturatzeko bideak:

- geoparkea.eus eta erreserben online sistema.
- Debako, Mutrikuko eta Zumaiako hiru turismo bulegoak.
- Bidaia-agentziak eta bidaia-agentzia hartzaileak, negozio kopuruan eta bolumenean gora egiten ari direnak.
- Online merkaturatzeko plataformak: Civitatis, Turismo vasco, etc.

Taldeentzat eskaera zerbitzua kudeatzen dugu webguneko formulario baten bitartez. Helburua egonaldia luzatzea da eta hain ezagunak ez diren eremuak erakustea, taldeari zerbitzu pertsonalizatua eskainiz. Eskola-taldeak zuzenean Algorri interpretazio zentrora bideratzen dira, eta aisialdiko talde arruntak, haiengan eragiteko marjina txikia dutenak, helmugan lan egiten duten enpresetara bidaltzen dira.

2.2. Promozioa eta merkaturatzea

Erabiliko diren sustapen-tresnak hurrengo hauek dira:

- **Turismoa sustatzeko azokak.** Basquetourrek edo Gipuzkoa Turismok ordezkatzeko gaituzten azoketara joango gara. Ekoturismo Kluba nazioarteko azoketara ere joaten da Geoparkea sustatuz.
- FITURREN bi tokitan izan gara, Euskadiko standean eta Estatuko Geoparkeen standean. Bietan 'Geoparkeko Bira' produktu berria aurkeztu da.
- Aste Santuan, **Bilbao Basque Festen** izango gara Bilbon, stand berriarekin.
- **Kanpaina bereziak** bisita gidatu batzuetarako unean uneko sustapena egiteko.
- **Merchandising elementu berria** turismo-bulegoetan saltzeko eta enpresa-opari gisa.
- Atzerritarrentzat irteera gidatuen informazioarekin **flyer** bat aterako dugu.
- **San Sebastian Turismoko** bazkide egingo gara gure produktuak saltzen laguntzeko.
-

3. ARDATZA_ LURRALDEA eta KONTSERBAZIOA

NEXT ditu laguntzen bitartez Elorriagako **aparkalekua eta trafikoa** kontrolatzeko sistema digital bat ipiniko da. Mahai tekniko bat sortuko da, Debako, Itziarko, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Udaltzaingoaren ordezkariekin batera premiak eta erabakiak denon artean adosteko.

3.2. Interpretaziorako azpiegurrak

- FLYSCHAREN INTERPRETAZIO ZENTROA
- MOILABERRI
- SANTA KATALINA KOMENTUA
- DEBAKO TURISMO BULEGOA
- HAB HISTORIAURREKO BAILARA

Next diru laguntzekin finantziatutako proiektuak dira eta ez dira partida ekonomikoak Geoparkeko taulan sartuko. Presupuestorik ez badute ere guretzat lan karga handia izango da.

3.3. Natura-ingurunea babestea eta kontserbatzea

- **Arno edo Izarraitz KBE** (ZEC) gestio planeko ekimeneen bat aurrera eramán, udalaren batekin eta GFArekin batera.
- **Errotaberri erreka** egurrezko presen eraginaren jarraipena egin.
- **Nazioarteko egunak ospatzea**. GGNk geoparkeen jarduerekin lotutako nazioarteko egun batzuk ospatzera animatzen gaitu:
 - Hezeguneen egunean, otsailaren 2an.
 - Basoen egunari lotuta, martxoaren 21ean zuhaitz landaketa egingo dugu.
 - Natura 2000 Sarearen egunean, apirilaren 21ean.
 - Hegaztien egunean, maiatzaren hasiera, eraztunketaren gaia landuko dugu.
 - Biodibertsitatearen eguna, maiatzaren 22an da (Europako Geoparkeen Astearen baitan)
 - BIOTOP (Europako Geoparkeen Astea)
 - Abenduaren 5ean, Lurzoruaren egunean, tailer praktiko bat egin daiteke, lurzoruaren atalak ezegutzeko.
 - Abenduaren 11, Mendien Nazioarteko Egunarekin bat egingo du Geoparkeak.
- Naturarekiko sentsibilizazioa indartzeko beste ekimen batzuk ere egingo dira, Kutxa Ekoguneko Bihotz Berdearekin lankidetzat, adibidez.

4. ARDATZA_ BERTAKO GARAPENA eta SOSTENIBILIDADEA

4.1. Lehen sektorea bultzatzea

- **Geogourmet saskiak**, gazia eta gozoa promozionatu eta saldu.
- Debemenek egiten diharduen **landa garapeneko planean** elkarlana.

4.2. Geoparkezaleak

Geoparkezaleen Ekintza Planean jasotako jarduerak garatuko dira.

- **Prospekzio-bisita Catalunya Centralera.**
- **Entitate laguntzaileen figura tokiko ekoizleei eta jatetxeei zabaltzea**, UNESCOko ebaluatzaileen 2022ko txosteneko gomendioei jarraituz.

4.3. Europako Geoparkeen Astea

Aurten maiatzaren 23tik ekainaren 1era izango da Europako Geoparkeen Astea. Urtero bezala hainbat ekintza egingo da herritarrei zuzenduta, tartean:

- Hitzaldiak, Geotalks
- Tailerrak, erakusketak, ibilaldiak
- Doako bisita gidatuak

5. ARDATZA_GESTIO OROKORRA, KOMUNIKAZIOA eta MARKETINA

5.1. Gobernantza

Iaz, Mendaroko Udalak eskaera bat egin zuen Geoparkearen handiagotze aukerak aztertzeko. Bilerara Zestoa eta Getaria ere gonbidatu genituen. Harrezkero ez da mugimendurik egon baina gure laguntza eskaintzak indarrean jarraitzen du.

Egoitza aldaketa egongo da 2025ean. Geoparkeak bere bulegoa izango du turismo bulegotik kanpo, udaleko beste eraikuntza batean.

Geogarapeneko lantaldea: bertako langileak

- **Gerentziak** geoparkearen kudeaketa orokorreko eta Geoparkeen Europako eta Munduko Sareko (EGN/GGN) eta Geoparkeen Espainiako Batzordeko (CNEG) ordezkarietako funtzioak hartzen jarraitzen du. Aurten, Espainiako Geoparkeen Sareko koordinazio-taldeko koordinatzaile ordea izango da.
- **Bisita gidatuen dinamizatzailerak**, 2025erako, zeregin hauekin jarraituko du:
 - Erreserben online sistemaren kudeaketa
 - Turismo arloaren kudeaketa orokorra
- **Komunikazio- eta marketin-arduradun berria**, lanpostu berria sendotzen da, prentsa-oharren sorkuntzaren, webgunearen eguneratzearen, blogaren, newsletter-en eta abarren arloko zereginak bere gain hartuko dituena. 2022an egindako Marketin Plan berrian oinarritutako marketin-ekintzak martxan jartzeaz ere arduratuko da. Geoparkezale figura turismotik haratago kultur elkartean artean irekitzeko plana idatzi eta exekutatu du.

Kanpo laguntzak:

- **Zuzendaritza Zientifikoak** bere eginkizunetan jarraitzen du, EGNko eta GGNko ordezkagarritasunarekin eta IUGSko (International Union of Geological Sciences) Ondare Geologikoaren Batzordearen koordinazioarekin batera.
- **Community manager** (RRSSen kudeatzailea) @Geoparkearen estrategiarako Facebook, X eta Instagram sare sozialetan.
- **Ingurumenaren eta jasangarritasunaren koordinazioa**, Naturagune Babestuetako (NB) jarduerak eta ingurumen-hezkuntzako ekintzak koordinatzeko.
- **Kontabilitate-aholkularitza**, aholkularitza juridikoa eta urteko kontuen auditoretza, erakundearen eguneroko kudeaketarako.

5.2. EGN, GGN eta UNESCO Geoparkeen Europako Sarearekin harremanak

Estrategikoa da Geoparkeak nazioartean duen presentzia eta eragina handitzea. Horretarako, jarrera aktiboa izaten jarraituko da bai urteko topaketetan, bai beste foro batzuetan ere.

- **Geoparkeen Elkarteari** bultzada. 2024an sortu zen 5 geoparke sortzailerekin eta

- orain geoparkeen kopurua handitzera joan behar da.
- EGN eta GGN topaketak 2025ean:
 - Martxoaren 5-6an UNESCOren egoitzan, Parisen, izango da. Geoparkeen programaren 10. Urteurrena ospatzeko.
 - Munduko UNESCO Geoparkeen Nazioarteko 11. Konferentzia Txileko Kutralkura UGGn izango da, irailean.
- Urteko ekarpenak egingo dira Europako Sareari eta GGNri, sustapen-tasa gisa, lehenengo kasuan, eta UNESCO Geoparkeen programaren funtzionamendurako ekarpen gisa, bigarren kasuan.
- Bi sareetarako komunikazio-euskarrietarako ekarpenak
 - EGN newsletter, sei hilean behin
 - GGN Newsletter
 - EGN magazina

Txostenak EGNra eta GGNra bidaltzen jarraituko dugu: urteko txostena eta Europako Geoparkeen Asteari buruzko programa eta azken txostena. Aurten gainera, 2026ko birbalioztatzerako txostena prestatu eta bidali behar dugu.

UNESCOKo ebaluatzaileen panela. Geoparkeak dituen bi ordezkariak ebaluatzaileen panelekoak dira, eta hauek urtero ebaluazio- eta birbalioztatze-misioak egiten dizkiete beste geoparke batzuei.

MUNDUKO GEOPARKEEN ESPAINIAKO SAREA

“Geoparques” marka indartu nahi dugu, helmuga turistiko jasangarriarekin lotuz. Horretarako komunikazio eta marketing plan bat egin behar da eta denon artean lana banatu oinarritzko egutegi bat mantentzeko: Fitur, Geoparkeen Astea, EGN udaberriko topaketa, GGN konferentzia, Jardunaldi Irekiak, etab.

- **Geoparkeen Jardunaldi Irekiak** foro honen urteroko ekimena dira. Urtero leku eta gai desberdin batean ospatzen dira eta 2025eko urrian Catalunya Central UGGan izango dira.

CNEG (Geoparkeen Espainiako Batzorde Nazionala)

Batzorde honetan Geoparkearen arduradunari eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen zuzendariari dagokie ordezkartza. Batzordeari txostenak bidaltzen dizkieten hautagai-zerrenda berriei aholkua eman zaie, UNESCOri bidaltzeko, forma-akatsik gabe behintzat. CNEG ofizialki sortzeko errege-dekretu bat idazten ari gara, gaur egun ez baitauka izaera formalik.

ONLINE

- **Berrien atala** eguneratuta egongo da. 2025ean hogeita hamar bat berri argitaratuko dira webgunean.
- **Newsletterra** bi hilean behin bidaliko da, gutxi gorabehera. 6 ale inguru urte osoan.
- **Bloga elikatzen jarraituko dugu**, eta bertan aldizka postak argitaratuko ditugu zientziari, ingurumenari, turismoari, planei eta esperientziei buruz.
- **Marketin digitaleko** ekintzak egingo dira, egin berri den planean oinarrituta. Birarekin lotu daiteke adibidez, Kataluinian promozioa eginez.
- **Webguneko** atalak berritu: lantaldearen aurkezpena, irisgarritasun irizpideetara egokitu, eta abar.
- **Webgunean** salmentarako erakusleiko bat sortuko da salgai dauden Geogourmet otarrak, karta-jokua eta argitaratu diren liburuak erakusteko.

OFF LINE

- **Prensa-oharrak eta/edo prentsaurrekoak** egingo dira, eta harreman estua izango da inguruko komunikabideekin.
- **Publizitatea kontratatuko da** komunikabideetan, irratan, prentsan edo aldizkari espezializatuetan. Batez ere, hiriburuetako komunikabideetan eta turismo-jarduera txikiagoa den hilabeteetan.
- Berriketan, Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza eta Zumaia GUKA hedabideetan lankidetzak mantentzen da, Geoparkea eta zientziari buruzko artikuluak proposatuz.
- Geoibilbideek eta beste baliabide batzuen **bideo laburrak** egingo dira, Instagram eta Tik Tok bidez zabaltzeko.

5.4. Marketina

- **Irudi bateratua.** Lanketa orokor bat egingo da hiru herrien irudia geoparkearekin bateratzeko. Azpiegitura guztiak berritu egin behar dira eta orain da hausnarketa egiteko unea.
- **Photocall-ak** sortu geoparkeko toki esanguratsuenetan.
- **Arropa korporatiboa** egingo da geoparkeko irudia indartzeko.